

# Frantziako historia pastoraletan

JEAN HARITSCHELHAR\*

**RESUMEN**  
**LABURPENA**  
**ABSTRACT**

Como indica el título de este artículo, se pretende ofrecer un panorama especial de la historia de Francia a través de las Pastorales vascas. Para ello se han elegido tres personajes especiales: Roland, Juan de Arco y Napoleón. Estos personajes aparecen transformados en mito en esta historia.

*Artikulu honen izanburuan agertzen den bezala, Frantziako historiaren ikuspegi berezi bat eskaini nahi da euskal Pastoralaren bitartez. Horretarako hiru pertsonaia hautatzen dira: Roland, Arc-eko Joana eta Napoleon. Pertsonaia hauek mito bilakaturik aurkesten dira historia honetan.*

As its title indicates, this article offers a particular view of the history of France through the eye of the Basque Pastorals. The author selects three key figures: Roland, Joan of Arc and Napoleon, who are transformed into myths.

**PALABRAS CLAVE**  
**GAKO-HITZAK**  
**KEY WORDS**

Pastoral, Francia, Roland, Juana de Arco, Napoleón.

*Pastorala, Frantzia, Roland, Arc-ekoJoana, Napoleon.*

Pastoral, France, Roland, Joana of Arc, Napoleon.

\*Euskaltzainburu ohia

**1** 789-1815: mende laurden bat berezia Frantziako historiarentzat. Alabainan, argien mendea, XVIII. mendea, bururatzen da Iraultzarekin, Louis XVI. eta Marie Antoinette haren esposa gillotinatua, Errepublikaldarrikatua bere gehiegikeriekin “Terreur” delakoarekin. Gero sortzen da “Directoire” deitzen den gobernu berri bat guti iraunen duena. Egipto-tik jiniakako jeneral gazte batek, kortsikarra sortzez, bere anaiaaren laguntzari esker, bereganatzen du boterea lehen kontsul bilakatuz eta handik laster, zenbait urteren buruan, enperadore izendatua da (1804), laburra izanen delarik haren erreinua.

Napoléon I. arekin Frantziak aldatzen du osoki bere itxura: hari esker sortzen da zentralizazioa, idazten da kode zibila, eraikitzen dira lizeoak, hots, oraindik bizi da Frantzia Napoléon-ek asmatu duen bizimoldean. Europako erresuma guzien kontra gudukatuko da: Ingalaterra, Espainia, Austria, Errusia eta fama haundia lortuko bazter guzietan.

Handik laster, haize berri batek joko du Europa guzira, bizitzeko, pentsatzeko, asmatzeko, senditzeko manera berri batek sustatzen duela jendea, bigarren iraultza bat izpirituetan, klasiko garaia utziz eta erromantizismoan sartuz. Nitasuna agertzen da dauzkan sendimendu guziekin: amodioa bere gora beherekin, bakartasuna, ametsa eta utopia ere, mundu berri bat gogoan; bainan, denbora berean, gorai patzen da iragana, oraiotasunetik ihes egiteko, Erdi Aroa bereziki, arte gotikoa hain zuzen eta beraz, historiari emaiten zaio lehenetsuna. Orduan sortzen da Ingalaterran elaberri historikoa, Walter Scott idazleak lortuko duen arrakasta dela lekuko. Frantziar Victor Hugo-k eremaiten gaitu Erdi Aroa *Notre Dame de Paris* (1831) eleberriarekin, berpiztuz XV. mendeko Parise asmatua katedrala gotikoaren inguruan.

Egia da bukatu dela Louis XVIII. eta Charles X. erregetza, hain borbittza izana dena, 1830eko iraultzarekin hasten dela gobernatze berri bat Frantsesen Errege eta ez Frantziako Errege dela Louis Philippe. Historiagileren garaia da Frantziar agertzen direlarik Augustin Thierry bere *Lettres sur l'Histoire de France* (1827) eta *Dix ans d'études historiques* (1834) liburuekin, Guizot Ingalaterrako eta Frantziako historiari emana, ministro izanen delarik bozkaraziko duela 1833ko ekainaren 28an erakaskuntzaren bultzatzeko lege garrantzitsua, orduz gero eskolak eraikiko direlarik herri eta herrikka gehienetan. Halere gizon haundiena da Michelet, harentzat historiak behar duela izan iraganaren berpizte osoa baliatuz araberako dokumentazioa. Egia erran, Louis Philippe erregeak izendatu du Frantziako Artxibategian, historiaren atalburu, dokumentazioaren arduradun. Orduan idatzi ditu bere Frantziako historiaren lehenbiziko sei liburukiak aztertzen duela, bereziki, Erdi Aroa. Historiagile eta elaberrigileak bide beretik doaz, iraganen berpizteari buruz, bakoitza bere dohainekin.

Literaturaren aldetik azpimarratzekoa da “Chanson de Roland” olerki epikoaren eskuizkribu bat agertzen dela Oxford-en eta argitaratzen dela 1837an. Hona, beraz, non agertzen den frantses literatura-

ren lehenbiziko obra, XII. mendeko hastapenean idatzia. Asma daiteke zer izan den orduko idazle eta jende jakintsunentzat holako aurkikuntza: Erdi Aroko dokumentu literario bat bere aitzindariarekin “Roland” izeneko gizona, gudu batean hila, Charlemagne, enperadore nagusiaren garaian. Eragin handia ukanen du argitaratze horrek.

Historiaren aldetik 1841 eta 1849ren artean Jules Quicherat arkeologoak argitaratuko ditu Jeanne d’Arc-en bi auziak: lehena Rouen hirian kondenatua izan delarik eta han bertan errea 1431an, bigarrena neskatxa gazte horren zurrizko Elizak ideki duena eta bururatu dena 1456an. Dokumentazio horrekin hobeki ezagutzen da zer izan den Jeanne d’Arc, nola jokatu den egin dioten auzian, are gehiago nola jokatu diren epaileak. Geroztik, Jeanne d’Arc-en fama haundituko da XIX. mendearen bigarren zatian Frantzia guzian eta Elizak dohatsuen artean ezarriko du 1909an eta saildutuko 1920an lehen mundu gerlaren ondoan.

Bertze mito bat sortuko da ere XIX. mendean, Napoléon enperadorearena. Jendeen artean gelditzen da garai hartako oroitzapena, orduko gerlana, Frantzia gudukatzen zelarik Europa guzian kontra, denek daukate gogoan nola Enperadore hori hil zen han nonbait Sainte Hélène deritzan ugarte batean, preso, Ingelesen menpean. 1840ean Louis Philippe erregeari esker, Napoléon-en hil kutxa Frantziaraten da eta ohore handitan bere hil hobia dauka “Invalides” deritzan Pariseko jauregiko elizan, beila leku bilakatua Frantsesentzat.

Hona beraz hiru izen, Roland, Jeanne d’Arc eta Napoléon, bizi berri bat lortuko dutena XIX. mendean, lehenbiziko biak Erdi Arotik berpiztuak, hirugarrena eragin handia ukan duena orduko historian eta laster mito bilakatuko dena. Hiruak agertzen dira Zuberoko pastorale-tan.

## 1. ROLAND

Duela 30 urte, 1978an hain zuzen, ospatu zen Orreagako gudukaren hamabigarren mendeurrena Donibane Garazin bildu zen kongresu batean. Baionako “Société des Sciences, Lettres et Arts” elkarteak argitaratu zituela Aktak, zenbaki berezi batean 1979an. Christian Amalvi, Pariseko Biblioteka nazionaleko ikerlariak aztertu zuen “La chanson de Roland et l’image de Roland dans la littérature scolaire en France de 1800 à 1914”, hots, nola agertzen den Roland eskolako liburuetan. Argi eta garbi dago behar dela III. Errepublika igurikatu ikusteko Roland sartzen ari hurrek ikasiko duten Frantziako historian. Ez aipatua XIX. mendearen lehen zatian, aipamen batzu agertzen dira II. Inperio garaian, goraipatua izanen da Roland 1870etik goiti. Badira arrazoin asko hortartzeko eta Christian Amalvi-k emaiten ditu. Alabainan, 1870ean Frantziak galdu du gerla Alemanen kontra eta bi probintzia: Altsazia eta Lorrena. Orduan, nazionalismoa hedatuko da Frantzia guzian eta Roland sartzen da bertze gizon emazte oroitgarrien artean: Vercingétorix, Du Guesclin, Jeanne d’Arc,

Bayard, Turenne, Hoche eta Marceau. Denak Frantziaren alde jokatu dira kapitain haundi gisa eta nahiz galdu zuen guduka Roland-ek, halere etsenplu ederra da frantses haurrentzat. Mendearen bukaeran, 1899an, Maurice Bouchor erakasleak argitaratzen du *La chanson de Roland* eskolentzat eta sarreran hauxe dio:

C'est à la jeunesse française que je dédie cette traduction de la Chanson de Roland. J'aime passionnément notre vieille épopée nationale. Je voudrais qu'elle fût connue de tous les Français... C'est pourquoi j'ai tenté après d'autres un rajeunissement de ce vénérable poème... et j'offre le fruit de mon travail à ces jeunes hommes, à ces jeunes filles qui sont aujourd'hui l'espérance de la Patrie et qui, demain, seront sa force.

Argi dago zer ideologia mota dagoen hitz horietan, nola moldatu behar den frantses gazteria geroari buruz, jakinik geroa dela bi probintzia galduen berriz biltzea. Kurioski, Frantziaren diren bi erakaskuntza motak elgarrekin doatzila ideologia hori onartuz. Adibidez, erakaskuntza publikoan aldatzen da Roland-en itxura eskolako liburuetan. 1876an hona nola kondatzen den Roland-en heriotza:

Roland avait à la main son épée qu'il appelait Durandal, il se mit à la regarder et presque pleurant s'écria: Oh, épée, très belle et resplandissante, grande et large, forte et ferme, blanche comme l'ivoire, marquée d'une croix d'or et bénie par les lettres du Saint nom de Notre Seigneur Jésus Christ, à qui appartieras-tu désormais? Qui t'aura? Qui te portera? Cela me fait une trop grande douleur de penser qu'un païen pourrait te manier après ma mort!

Hala nola hil zen Charlemagne-n iloba, giristino zaldun suharra.

Bost pa sei urteren buruan, Jules Ferry ministroak sortu zuelarik erakaskuntza laikoa eta baitezpadakoa, 1882ko argitalpenean, Ernest Lavisse eskolako historia liburuen idazleak kondatzen du Roland-en heriotza:

De tous les héros de la France, Roland demeurerait seul, blessé à mort, évanoui... Alors il se souvint de belles batailles qu'il avait livrées et de Charlemagne son Seigneur, et de la douce France sa patrie, puis sa tête s'inclina sur son épaule et il mourut.

Horrek argitzen du nola erakasten zen Frantziako historia, nola frantses nazionalismoaren ideologiak ordezkatzeko zuen aitzinekoa, eta zer zitekeen 1778an "*la douce France*" delakoa.

Hartzen balinbada *Roland* pastorala eta Hérelle-n ikerketei jarraikiz, ohart daiteke Larrieu medikuak bildu zituen eskuizkribuetan badela bat 1464 bertset dauzkana, XVIII. mendearen bukaerakoa.

Bainan, dudarik gabe, bi egunez jokatu zitekeela, Espainiako gerla eta Orreagako guduka azkenik heldu zirela, aipatzen zirela lehenik Charlemagne-n batailak Turkoen kontra Ekialde hurbilean eta gero Floripe et Guy de Bourgogne-n arteko amodioak. Hirugarren zati horretan biltzen dira Musulmanak Zaragozako erregearekin, Ganelon traidorea, Orreagako guduka, Roland-en heriotza musu bat emaiten diolarik Durandal bere ezpatari, otoizten duela Andre dena Maria eta botatzen azken hatsa. Biziki hurbil Lavissee-k idazten zuneari 1876eko argitalpenean.

Ari dago badela pastoralaren iturri gisa Frantzia guzian hedatua den aspaldiko kondaira, agertzen baita Britainian *Le mystère de Charlemagne et des douze pairs de France* antzerkiarekin eta ere Biarnon *Tragédie des douze pairs de France* delakoarekin.

Halere *Roland* pastorala, Hérelle-n ikerketei esker 1796an emaiten da Alozen, 1811an, Onizepean, 1827an Gabadin. Anartean, ikusi dugun bezala Roland-en itxurak bertze hedadura hartzen du *La chanson de Roland*-en argitalpenarekin, sartzten da eskoletako liburuetan eta 45 urteren buruan berriz emaiten da pastorala lau aldiz jokatu dela 1872an Ligin, 1883an Muskildin, 1887an Arrokiagan eta 1909an Urdiñarben. Ohart daiteke berriz “modan” dela Roland, hain zuzen III. Errepublikara garaian goraipatzen delarik Orreagan hil zen zaldun famatua.

## 2. JEANNE D’ARC

Jadanik errana dugu nola Jules Quicherat-ek publikatu zituen Jeanne d’Arc-en auziak, horiek zirela egiazko dokumentuak. Orduz gero, nahiz zabilzan Frantzian XVI. mendetik hasiz neskatxa horren balentriak Ingelesen kontra askatuz Orléans hiria, Reims-eko katedralean Charles VII sakratuz Frantziako errege eta bere azken hatsa emanaz Rouen-eko plaza batean, nehork ez zakien nola kondenatua izan zen eta nola osoki zuritua gero.

Dokumentu horiekin berriz sartzten da Jeanne d’Arc Frantziako historian, are gehiago XIX. mendearen azken laurdenean. Ez daiteke ahantzi zertan zagoen Frantzia garai hartan, marruskatzen zuelarik Alemaniaren kontra galdu zuen gerla eta bi probintzien galtzea. Roland bezala Jeanne d’Arc izanen da frantses nazionalismoaren ardatz bat, Ingelesen kontra gudukatu zena, harekin hartu zela ehun urteko gerlaren bihurgune bat Frantziatik haizatuz Ingelesak (bouter les Anglais hors de France) hogeitun urteren buruan 1451n zinez askatua izanen zela Frantzia Akitaniako Castillon-en gudukaren ondotik.

Egiatzko sinboloa da Jeanne d’Arc XIX. mendearen bukaeran. Alde batetik Frantzia giristinoak galdeginen du eta otoitzak egiten Jeanne d’Arc-en saindutzeko, giristino, birjina eta martira izan zelakotz, Charles Péguy izan delarik sustatzaile suharra eta behar ziren urratsak eginik Elizak dohatsu egiten du 1909an eta saindu 1920an. Bertze aldetik Frantzia laikoak ikusten du Jeanne d’Arc-en baitan Frantzia

askatu duen emaztea, oroituz Ingelesen kontra dabilala Frantzia Afrikan bereziki bereganatuz koloniak eta kasik gerla hasiz Fachodako gertakarien landa 1898an. Denbora berean, Frantziaren askatzearekin doa behar duela bere osotasunean askatua izan, gogoan dauzkala Altsazia eta Lorrena Alemanen menpean direlarik. Minbera da Frantzia ikusten duelarik Ingelesek dauzkan arazoak Afrikan eta artoski ari delarik gerlaren preparatzen Alemanen kontra 1870an galdu dituen bi probintzien bereganatzeko.

Argi dago Roland eta Jeanne d'Arc sartzen direla orduko frantses ideologian.

*Jeanne d'Arc* pastoralaren eskuizkribu zaharrena d'Andurain mauletar familian zagon Hérelle-k dionez ; 1963 bertset dauzka eta dirudianez XVIII. mendekoa da, paperak hala salatzen baitu (1723koa) eta idazkera ordukoa ere dirudianez.

Pastoral idazleak segitzen du Jeanne d'Arc-en bizia, nola agertu zitzaion Raphaël aingerua, Orléans-eko guduka, Reims-eko katedraleko egun haundia, Rouen-eko auzia eta azken orenak Satanek proposatzen diolarik den sutik ateratzean harekin ezkontzekotan. Eza oihukatzen duelarik hiltzen da su-garren artean. Bukatzeko bi aingeru agertzen dira Aita Sainduaren aitzinean eta galdegiten diote bertze auzi bat Jeanne d'Arc-en zurtzeko. Hala egiten da eta jakile faltsuek aitortzen dute gezurtiak izan direla. Ifernura kondenatuak dira eta Satanek eremaiten ditu. Flandrian XVIII. mendean eta Biarnon 1850 baino lehen antzerkiak emanak izan dira aipatuz Jeanne d'Arc-en bizia.

Hérelle-k ez du aurkitu non emana izan den *Jeanne d'Arc* pastoralara XVIII. mendean eta XIXeko lehenbiziko 75 urtean. Ezagutuak diren emanaldiak XIX. mendeko lehen hamarkadakoak dira: 1891n Larrañen, 1896an Atharratzen eta 1910ean Ozazen eta, dirudianez, berak ikusi ditu ordu haietan segitzen baitzituen pastoral guziak. *Jeanne d'Arc* pastoralaren bitartez Iparraldea sartzen da osoki lehen mundu gerlari buruzko izpirituen moldatzean.

Uzten da Erdi Aroa eta Aro hurbilean sartzen gara Napoléon-i buruz eginikako pastoralekin. Gauza harrigarria da, nolaz hainbeste gerla eta batailen ondotik, hainbeste hil utzirik guduka horietan, atxiki duen jende xeheen aldetik, alde batetik maitasuna eta bertzetik fama. Egiatzko mito bat bilakatu da Napoléon.

Egia da izen goitia zuela “Le petit caporal”, egia da ere bazakiela soldadoen balakatzen eta noiz nahi agertzen zela soldadoen artean. Erran behar da ere bazakiela sortarazten jendeen artean ametsak eta enperadorea ez zela erregeak bezala arraza berezi batetik aterai, kortsikarra zela sortze ez eta ere noble horietarik.

Beraz, berriz etorri zirelarik erregeak 1815ean, segitu zuen preso zen enperadorearen fama ona, are gehiago hil zelarik 1821ean ingele-

### 3. NAPOLÉON

sen eskuetan. Jadanik aipatu dut nola 1840an Louis Philippe erregeak jinarazi zuen Napoléon-en gorputza eta nola ezarri zuen “Invalides” deritzan jauregi eta elizan. Hamarkada horretan agertzen da Napoléon-en iloba eta osabaren famaz baliatuz izendatzen dute II. Errepublikako president eta laster enperadore, Napoléon II.a zeren familia horretan ez da ahortzi behar, Napoléon-en semea “L’aiglon”, arrano tipia, hau ere mitifikatua.

Literatura herrikoia aldetik pentsa daiteke ez dela eskasa izan Napoléon-en bizia aurkezten zuten liburuxken eragina. Zer nahi gisaz, bai Biarnon eta bai Zuberoan, pastoral idazleek erakutsi dute nahi zutela goraiatu Napoléon egiazko mitoa Frantsesen artean. Ez bakarrik Napoléon bainan ere enperadore izendatu aitzin, Bonaparte jenerala. Hérelle-k dioenez hiru pastoral jokatu dira Biarnon, hiruak frantsesez, horrek erakusten duela frantsesa dela Biarnesentzat hizkuntza noblea pastoralarentzat.

Lehena deitzen da *Bonaparte, première campagne d’Italie (1796-1797)*. Pastoral bitxia dirudianez, bost agerraldi dituela, frantses tragedi bezala eta neurritzak hamabi silabakoak dira, frantses “alexandrinak”. Eskuizkribuak Baionako euskal erakustokian daude bainan Hérelle-k ez du aurkitu non emana izan den.

Bigarrenaren titulua da *Bonaparte, deuxième campagne d’Italie (1800)*. Pee-Laborde, jaunak zaukala eskuizkribua, bainan zoritxarrez Hérelle-k ez du astirik aski ukan behar den bezala istudiatzeko. Jokatua izan da 1857an Mumur deritzan Biarnoko herrian, 1878an Eretan eta 1896an Muntorin.

Hirugarrena, beti frantsesez idatzia, badoa urrunago historian Bonaparte enperadore bilakatu baita. Titulua: *Les trois empereurs, campagne d’Austerlitz*, Pee-Laborde dela eskuizkribuaren jabea. Bertzearentzat bezala ez du iritzirik emaiten Hérelle-k. Jokatua izan da 1866eko otsailaren 8an Eretan, 1866eko urriaren 28 eta 29an Mumur-en, 1866eko azaroaren 7an Oloronen eta 1868ko apirilaren 19an Landan. Bigarren inperio garaian gaude eta bi urte barne bost aldiz jokatua. Gero, hogeita lau urteren buruan Eretan bi aldiz emana izan da 1892an eta bi aldiz ere Muntorin 1913an, hain zuen I. mundu gerlaren bezperan.

Biarnesak baino atxikiagoak dira Zuberotarrak beren hizkuntzari eta aspaldiko ohidura daukate eta XIX. mende horretan jokatzen da *Napoléon empereur* pasterala. Eskuizkribu asko aipatzen ditu Hérelle-k, luzeena, 1566 bertset dauzkana, d’Andurain jaunaren eskuetan. Napoléon-en bizia azaltzen du 1804etik enperadore izendatua izan zelarik 1814 artio, beraz hamar urteren historia edo eskuizkribu batek dion bezala “trageria”. Emaiten dira bataila guziak (batailak beharrezkoak izanez pastoral batean) hasiz Austerlitz-etik, segituz Iena-ekin Prusiako erregea bentzutuz, Espainiako gerla, Napoléon-en dibortzioa Aita Sainduak onartzen ez duena, eta gero Errusiako gerla Frantzia bururatzen dena Napoléon-ek uzten duelarik bere kargua eta

Elbe ugartera igortzen dutelarik, Louis XVIII.a hupatzen dela Frantziako tronura. Horretan bukatzen da pastorala ez aipatuz ehun egunak, Waterloo-ko guduka eta Sainte Hélène ugarteko presondegia.

*Napoléon empereur* jokatua izana da 1849an Donapaleun, 1880an Barkoxen, 1890ean Lakarrin, 1892an Atharratzen, 1895ean Donibane Garazin, 1912an Eskiulan. Ukan du arrakasta XIX. mendeko bigarren zatian, Errepublika garaian bereziki.

\* \* \*

Hiru mito haundiek —Roland, Jeanne d’Arc eta Napoléon— egin dute beren sarrera euskal pastoraletan. Egia da jadanik bertze frantses erregeek egina zutela, hala nola Clovis XVIII. mendean, bi pastoraletan, bat *Histoire de Clovis* eta bertzea *Le baptême de Clovis*, baina sar daitezke bereziki erlisionezko pastoraletan. Halaber *Saint Louis roi de France* pastoralarekin, Frantziako errege, baina Elizako sainduen artean sartua.

XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran pastoral idazle berri bat agertzen da, Jean Aguer. Hiru pastoral idazten ditu. Lehena *Louis XI* erregearen bizia eta Hérèle-k dioenez baliatu du Henri Martin-en Frantziako historia. Bigarrena *François I<sup>er</sup>* 1900ean jokatua Liginagan, Blanchet-en Frantziako historia delarik haren iturria. Hirugarrena *Henri IV* Nafarroako errege eta Frantziako errege gero, hau emana Onize Gañen 1903an, iturritzat zuela Duruy-ren Frantziako historia. Hiru pastoral horiekin ikus daiteke “Histoire de France” delakoaren eragina, jendea eskolatuagoa izanez eta Historiak, garai hartan, hartzen duen indarra, Frantziaren goresteke.

XIX. mendearen hastapenean agertzen da Baionan, 1906an hain zuzen, liburutxo bat *Ûskaldünak Ibañetan, trajeria hirur phartetan*, Justin de Menditte apaizak eta Clément d’Andurain-ek idatzia. “Hirur phartetan” horrek salatzen du ez dela ohiko pastorala. Alabainan antzerki horretan agertzen dira Moroak, Frankoak Charlemagne eta Roland-ekin eta Ûskaldünak. Zein dira “Türkak”? Zein “Khiristiak”? Charlemagne Euskaldunekin, Otxoa dela haien zuzendaria, gudukatzen da Musulmanen kontra Zaragozan. Bigarren partean Altabizkarko bestetan kantu eta dantzen artean (XIX. mendeko folklore hutsa) Charlemagne-k erabakitzen du Iruñea behar dela suntsitu eta Ganelon traidorea da berriaren hedatzailea. Otxoa, haserreturik, gudukatzen da Ganelon-en kontra eta hiltzen du. Hirugarren partea Euskaldunek atakatzeko dute Roland, Otxoak hiltzen du eta bereganatzen Durandal espata famatua. Berrikuntza, Roland pastoralarekin konparatuz, Euskaldunak agertzen dira Orreagan eta ez Musulmanak.

Frantziako historiaren zati bat azaltzen da 1929an *Guillaume II* pastoralarekin, hots, berrikitan bururatu den I. mundu gerla aipatzen dela. Argi eta garbi dago zein diren “Türkak”, Alemanak duda izpirik gabe eta zein diren “Khiristiak”, nola ez Frantsesak? Batailak ez dira eskas, Marne-koa, Verdun-ekoa eta abar... Zati bat interesgarria,



Euskaldunak agertzen direlarik Verdun-en eta kondatzen dituztelarik pairatzen dituzten sofrikarioak, dauzkaten penak eta doloreak, aipatzen ere herri-mina. Bada zati horretan zerbait berri, jende xumeen, soldadoen kezkek eta ametsak. Pentsa daiteke ere ikusleen artean bazirela soldado ohiak, gerla hori egin zutenak, bazirela ere alarguntzak, haien senarrek bizia galdu zutela gerla ikaragarri horretan. Frantses nazionalismoa goraiatzen balinbada pastoral horretan azaltzen da halere beste ikuspegi bat, jende xeheena. *Guillaume II* pastorekin bukatzen da mende oso bat baino gehiago iraun duen aro bat: Frantziako historiarena bere jaun andere haundiekin, Roland, Jeanne d'Arc, Napoléon eta azkenik I. mundu gerla egin dituen hilekin.

Bertze aro bat hasiko da 1953an, Etxahun-Irurik bertsolari, kantu egile ezagutuak idatziko duelarik bere lehenbiziko pastoralara: *Etxahun-Barkoxe koblakaria*. “Süjeta” ez da gehiago errege, enperadore, saindu edo jaun haundi, ordea Barkoxtar olerkari bat “huntü” dituen kantuak kantatzen direla Barkoxen eta Zuberotan, ezagutuak ere Iparraldean, hil hobia daukalarik Barkoxeko hilarrietan. Orduan hasten da aro berri bat pastoralarentzat. Euskalduna balinbazen, euskaraz idatzia, Euskaldunek jokaturik, orduz gero osoki euskalduntzen da gaiak ere euskaldunak izanez, Euskal Herriko historia aipatuz, XX. mendeko bigarren zatian egin den kultur iraultza.